

Euskadiko udaltzaingoen antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru-arauak ezartzen dituen 58/2015 Dekretuaren Lehen Xedapen Iragankorrean aurreikusitakoa garatzeko, Ermuko Udaltzaingoaren Antolamenduaren eta Funtzionamenduaren Erregelamendu hau ematen da.

I.TITULUA XEDAPEN OROKORRAK.

I. Kapitulua XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA.

1.- Artikulua Xedea.

Erregelamendu honen xedea Ermuko Udaleko Udaltzaingoa arautuko duten jarduketa- eta funtzionamendu-irizpideak ezartzea da, toki-araubideari buruzko arloan indarrean dirauten legezko xedapenen testu bategina onesten duten apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 55. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

2.- Artikulua Aplikazio-eremua.

Erregelamendua Ermukoko Udaltzaingoari eta bere kide guztiei aplikatuko zaie.

II. Kapitulua ANTOLAMENDUAREN OINARRIZKO EREMUA

3.-Artikulua Araudi ezargarria.

Ermuko Udaltzaingoa Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Antolamenduko uztailaren 17ko 4/92 Legeak xedatutakoari jarraituko dio, bai eta aipatutako Autonomia Lege horren garapenean ematen diren gainerako xedapenei, araudi honi eta Ermuko Udalak, aipatutako arau-esparru horren barruan, onesten dituen gainerako arau eta ordenantzei ere.

4.-Artikulua Izena.

Ermuko Udaleko Udaltzain zerbitzuaren izena Ermuko Udaltzaingoa izango da.

5.-Artikulua Izaera juridikoa.

1. Ermuko Udaltzaingoa izaera zibileko Institutu Armatua da. Egitura eta antolaketa hierarkiakoak ditu, eta Alkatearen aginte gorenaren menpean dihardu.
2. Bere zereginetan dihardutenean, Ermuko udaltzainak Agintaritzaren Agente izango dira ondore legal guztietarako.

6.-Artikulua Udaltzaingoaren agintaritza.

Udaltzaingoa Udaleko alkate-udalburuaren ardurapean egongo da. Hala, alkateak bere eskumeneko eginkizun guztiak edo batzuk eskuordetu ahal izango dizkio beste zinegotzi bati edo Hiritarren Segurtasun Alorreko Zuzendariari.

Erregelamendu honen eraginetarako, udaleko agintaritzat hartuko da alkatea, edo, hala balegokio, eskuordetzea dela-eta alkatearen eskumenak betetzen dituen zinegotzia edo Hiritarren Segurtasun Alorreko Zuzendaria.

7.-Artikulua Eginkizuna.

Udaltzaingoa Udalaren menpean dagoen Segurtasun Kidegoa da. Bere eginkizuna hauxe da: eskubide eta askatasunen jarduera librea babestea eta herritarren segurtasuna babestea, ondoko artikulua adierazten dituen zereginen bidez.

8.-Artikulua Zereginak.

Ermuko Udaltzaingoa Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Antolamenduko uztailaren 17ko 4/92 Legearen 27. artikuluan bildutako ondorengo zereginak izango ditu:

- a) Gizabanakoen eskubideak erabili ahal izatea babestea, askatasun publikoak bermatzeko eta herritarren segurtasuna zaintzeko. Horretarako, polizia judizial gisa, Prozedura Kriminalaren Legeak ematen dizkion eskumenak erabiliko ditu.
- b) Udaleko ordenantza eta erregelamenduak, Alkatetzaren bandoak, Udalaren erabakiak zein Udalak gauzatu behar dituen poliziari eta gobernu egokiari buruzko gainerako xedapen orokorrak zehatz-mehatz betetzen direla zaintzea, bai eta gertatzen diren arau-hausteak Alkatetzari jakinaraztea ere.
- c) Eraikinak, parkeak, lorategiak eta, orokorrean, udal-titulartasuneko instalazio edo ondasun guztiak –ondasun horien zaintzari atxikita beste funtzionario batzuk egon arren– zaintzea. Zehaztutako kasuetan bere irekiera eta itxiera ere.

En los casos que se determine también su apertura y cierre.

- d) Trafikoaren eta garraioen zaintza eta antolamendua egitea, eta, zehazki: – Udal-mugartean ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa bideratzea, bide-hezkuntzan parte hartzea –laguntza eskatzen duten organo eta zentroekin kolaboratuz–, aparkaleku publikoak eta bidegurutzeak zaintzea eta hiri-bideetan barrena trafikoari segurtasuna eta arintasuna emateko gainerako eginkizunak burutzea, hori guztia Udalak emandako zein egoki diren maila handiagoko xedapenak aplikatuta. – Hiriguneko nahiz udal-bideetako esparruko garraibideen eta zerbitzu publikoko ibilgailuen inguruan indarrean dauden xedapenak betetzen direla zaintzen laguntzea, bidaiariei zein salgaiei dagokienez, eta, bereziki, arriskutsutzat jotakoei dagokienez. Horrez gain, haien segurtasunari eta higienez dagokienez, araudia gorde behar dute. – Trafikoaren plangintza, seinaleztapena eta antolamendua ulertzen duten udalorganismoekin kolaboratu eta parte hartzea.
- e) Laguntza ematea hondamen publikoko kasuetan eta gizarte-laguntza eta babes zibilaren ardura duten erakunde eta organismoekin kolaboratzea.

- f) Bizilagunen segurtasunari arreta ematea, pertsonak eta beren ondasunak zainduz, eta arreta berezia ematea Udalbatzako kideen babesari.
- g) Beren jarduketatik eratorritako eginbideak polizia judizial gisa egitea, agintaritza judizialak eskatzen duen informazioa, pertsonen edo ondasunen buruzkoa, biltzea eta atestatu egokiak egitea. Zeregin horiek bulego propioetan egingo dira eta agintaritza judizial eskudunak izapidetuko ditu zuzenean. Egindakoa agintaritzen eskura jarri arte beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira.
- h) Herritarrei ematea eskatzen duten interes orokorreko informazioa, hala nola zerbitzu publikoen helbide eta telefonoak, informazio-batzordeen eta Alkatetzari bisita egiteko ordutegiak eta antzeko beste informazio batzuk; baita arreta eta laguntza berezia ematea urritasun fisiko edo mental bat izateagatik behar duten pertsonen.
- i) Udaleko administrazio-arloko funtzionamendua egokia izan dadin laguntzea, agintzen zaizkien jakinarazpenak eta ikuskatzeak eginez eta toki-zergen ordainarazpenerako agintzen zaizkien udal-erroldak prestatzen kolaboratuz. Gainera, udaleko gainerako langileen lanalditik kanpo izateagatik sortzen zaizkien gaiei arreta eman behar dizkiete, betiere haiek ebazteko ezagutza berezirik behar ez bada eta zerbitzuari berari kalterik eragiten ez badiote.
- j) Segurtasun Batzordearekin kolaboratzea Autonomia Estatutuko 17.4. artikuluan aurreikusitako ondoretarako, kolaborazio horretarako lege-estaldurarik badago.

9.-Artikulua Lurralde-eremua.

1. Udaltzaingoak Ermuko udal mugarteari dagokion lurralde eremuan jardungo du, eta bertatik kanpo ere jardun ahal izango du Alkatearen baimena izanik, agintari eskudunak jarduteko eskatzen dion larrialdi edo premia egoeretan.
2. Baita ere, Udaltzaingoak Ermuko udal mugarteari dagokion lurralde eremutik kanpo jardun ahal izango du honako kasu hauetan:
 - a) Delitu nabarmena burutu ondorengo segidako pertsekuzioan; edo, baita ere
 - b) Agintari judizialaren aginduz.
 - k) Beste Udaltzaingo batzuek Ermuko udal mugartean baldintza berdinetan jardun ahal izango dute eta artikulua honetan azaldutako prozeduraren arabera.

10.-Artikulua Beste udalerriei lankidetzat.

Ermuko Udaltzaingoak beste udaltzaingo batzuekin batera lan egin ahal izango du egoera berezi eta apartekoetan hauen beharrak aldi batez betetzeko

Era berean, eta kasu berdinetan, beste udaltzaingo batzuek lan egin ahal izango dute Ermuko Udaltzaingoarekin batera.

III. Kapitulua JARDUERAREN OINARRIZKO PRINTZPIOAK.

11.-Artikulua Jarduteko oinarrizko printzipioak.

Udaltzaingoko kideek araudi honetan bildutako oinarrizko printzipioak bete beharko dituzte euren jardunean.

12.-Artikulua Antolamendu juridikora egokitzea.

- 1) Beren eginkizuna Konstituzioa, Autonomia Estatua eta gainerako antolamendu juridikoa erabat errespetatuz betetzea.
- 2) Beren eginkizunak betetzerakoan neutraltasun- eta inpartzialtasun-politiko osoz jardutea, eta, ondorioz, arraza, erlijioa, sexua, iritzia edo beste edozein egoera edo baldintza pertsonal edo sozial dela eta diskriminaziorik egin gabe.
- 3) Zintzasunez eta duintasunez jardutea. Ustelkeria-ekintza guztietatik bereziki jare izan eta horrelakoen aurka erabaki sendoz jokatu beharko dute.
- 4) Jarduketa profesionalean hierarkia eta mendekotasunaren printzipioei heltzea. Edonola ere, obediencia horrek ezingo ditu inoiz babestu delitu diren edo Konstituzioaren edo legeen aurka nabarmen doazen egintzak.
- 5) Justizia Administrazioarekin kolaboratzea eta laguntza ematea legeak ezarritako esparruan.

13.-Artikulua Komunitatearekiko harremanak.

- 1) Haien jarduera profesionalean zehar, bortizkeria fisikoa edo morala dakarren edozein abusu, bidegabekeria edo diskriminazio saihestea.
- 2) Herritarrekiko harremanen tratua egokia eta arretatsua dela ikustea une oro. Herritarrei laguntza eta babesa ematen saiatuko dira, egoerak gomendatzen badu edo beharrezkoa bada. Esku-hartze guztietan ahalik eta informazio gehien emango dute, esku-hartzeen kausa eta xedeei buruz, kolaboraziorik onena lortzeko.
- 3) Beren eginkizunak betetzean, nahitaezko erabakitasunaz eta luzatu gabe jardun beharko dute, kalte larri, berehalako edo konponezin bat saihestea horren menpe dagoenean. Halakoetan, agenteek eskura dituzten bitartekoak erabiltzeko orduan, kongruentzia-, egokitasun-, eta proportzionaltasun-printzipioek zuzenduko dituzte.
- 4) Ezingo dituzte armak erabili beren edo besteren biziarentzat nahiz gorputzosotasunarentzat arrisku larria dagoenean edo herritarren segurtasunarentzako arrisku larriko kasuetan izan ezik. Erabili behar izanez gero, aurreko atalean aipatzen diren printzipioen arabera egingo dute.

14.-Artikulua Atxilotuen tratamendua.

Ermuko Udaltzaingoaren kideek:

- Behar bezala identifikatu beharko dute beren burua, atxiloteta bat egiterakoan.

- Atxilotuen edo beren babesean dauden pertsonen bizitza eta osotasun fisikoa zainduko dute eta pertsonen ohorea eta duintasuna errespetatuko dituzte.
- Antolamendu juridikoak eskatutako izapideak, epeak eta baldintzak bete eta arduratsu ikusiko dituzte, pertsona bat atxilotzean, dituen eskubideen berri emanez.

15.-Artikulua Ardura profesionala.

Ermuko Udaltzaingoaren kideek ardura osoz beteko dituzte beraien eginkizunak, eta, lanean egon edo ez, eta aurretik Autoritatearen Agente bezala euren burua identifikatuz edozein leku eta unetan esku hartu beharko dute, legea eta herritarren segurtasuna babesteko.

16.-Artikulua Sekretu profesionala.

Ermuko Udaltzaingoaren kideek beren eginkizunak betetzeagatik ezagutzen duten informazio guztia sekretuan gorde beharko dute zorrozki. Ez dira egongo informazio-iturriak adieraztera behartuta, beren eginkizunek edo legearen xedapenek beste era batera aritzeko agintzen ez badiete.

17.-Artikulua Erantzukizuna

Ermuko Udaltzaingoaren kideak euren lan jardueran lege arauak hautsi edo urratuz burutzen dituzten egintzen erantzule pertsonal eta zuzenak izango dira, bai eta euren lana araupetzen dituen araudikoak eta aurreko artikuluetan azaldutako printzipioak hautsi edo urratzen dituztenean, zerbitzu publikoen ohiko zein ohiz kanpoko funtzionamenduaren ondorioz Ermuko Udalari egoki ahal zaion ondare erantzukizunari kalterik egin gabe.

II.TITULUA. **EGITURA ETA ANTOLAKETA.**

I. Kapitulua. **ALDERDI OROKORRAK.**

18.-Artikulua Ermuko Udaltzaingoak kidego bakar batek osatuko du, hartzen duen barne antolamenduari kalterik egin gabe.

19.-Artikulua Udaltzaingoaren agintari zuzena izango da Udaltzaingoaren Buruzagitza. Bertan kategoria gorena duenak beteko du postu hori, eta alkatearen agintaritza gorenaren mendean egongo da, edo eskuordetua izan den Udalbatzako kidearen mendean.

20.-Artikulua Udaltzaingoaren Buruzagitzarik ez egotekotan, edo lanpostua betetzea galarazten duen beste egoerarik gertatzen bada, haren eginkizunak azpian dagoen kategoriaren agintariak bere gain hartuko ditu, Alkatetzak izendatuta.

21.-Artikulua Poliziaren egituraketa helburuak egokien lortzeko ematen dituen zerbitzuetako operazio-beharren arabera da.

22.-Artikulua Hala balegokio, Udalak eraginkortasun, barne-koordinazio eta baliabideen ekonomiako printzipioen eraginpean ezartzen dituen sailetan egituratuko da Udaltzaingoa. Halaber, udalak sail bakoitzaren betekizun espezifikoak eta orokorrak eta udaltzain, ofizial eta agintari kopuruak eta haien agintaritzak finkatuko ditu.

23.-Artikulua Plantilla gizartearen beharren arabera da, eta aintzat hartuko dira udal-mugarteko konfigurazioa eta XX udalerriaren eta haren eragin-eremuaren ezaugarri eta berezitasun propioak.

II. Kapitulua. **EGITURA ETA PLANTILLA.**

24.-Artikulua Ermuko Udaltzaingoaren plantilla osatzen duten kide kopuruak arrazionalizazio-, ekonomía eta eraginkortasun-printzipioen arabera izan beharko du beti eta Ermuko Udaltzaingoak udalak urtero onartutako plantilla organikoan finkatutako langile kopurua izango du.

25.-Artikulua Ermukoko Udaltzaingoa 4/92 Legearen 118.1 artikuluaaren arabera eskala eta kategorietan egituratzen da, eta bertan sartzeko eska daitezkeen titulazioen arabera adierazten diren sailkapen-taldeei dagozkie.

- Ikuskaritza maila; Ofizial eta Ofizialorde kategoriak ditu; C multzoari dagozkio.
- Oinarrizko maila; Agente Lehen eta Agente kategoriak ditu; D multzoari dagozkio.

26.-Artikulua Ermuko Udaltzaingoaren antolamenduaren barruan, eskalen eta kategorien arteko proportzionaltasun irizpidea betez zehaztu behar dira dagozkion plantilletako agente-postuak eta kategoriak.

27.-Artikulua Udaltzaingoaren antolamendu eta eragimen egituraren honako lanpostu hauek izan ahalko dira:

- Hiritarren Segurtasun Alorreko ZUZENDARIA.
- Udaltzaingoaren Buruzagia: UDALTZAINBURUA
- Udaltzaingoaren Buruordea: OFIZIALORDE-BURUORDEA
- Txandako arduraduna: AGENTE 1.
- Agentea: AGENTEA.

28.-Artikulua Ondorioz, Ermuko Udaltzaingoaren organigrama hierarkikoa hauxe izango da:

- Alkatea.
- Zinegotzi ordezkaria.
- Hiritarren Segurtasun Alorreko zuzendaria.
- Ofiziala.
- Ofizialordea.
- Agente 1.
- Agenteak.

29.-Artikulua Hiritarren Segurtasun Alorreko zuzendari lanpostua funtzionario edo aldi bateko pertsonalak bete ahal izango du Lanpostuen Zerrendan islatutakoaren arabera. Hiritarren Segurtasun Alorreko zuzendari lanpostua funtzionario batek betetzekotan, izendapen librearen bidez hornituko da.

30.-Artikulua Kategoria bakoitzeko lanpostuetara iristeko, Funtzio Publikoari buruzko indarreko legediak dagozkion taldeentzako eskatzen duen titulazioa eduki beharko da.

III. Kapitulua. PLANTILLAKO BURUZAGI ETA AGINTARIAK.

31.-Artikulua Ofizialaren eginkizunak.

Alkate-udalburuaren edo eskuordetua izan den Korporazioko kidearen edota Hiritarren Segurtasun Alorreko zuzendariaren mendean zuzenean egonda, Udaltzaingoaren Buruzagitzako Ofizialaren ardura izango dira eginkizun hauek betetzea:

- ✓ Alkateari, zinegotzi-ordezkariari eta Hiritarren Segurtasun Alorreko zuzendariari plangintza eta koordinazioko proiektuen antolakuntza-neurriak proposatzea, zerbitzua eraginkorragoa izan dadin
- ✓ Zerbitzuaren zerbitzu propio guztiak zuzentzea, koordinatzea eta ikuskatzea, bai eta aipatutako zerbitzuak hobeto funtzionatzeko egokitzen jotzen dituen agindu eta jarraibideak ematea ere.
- ✓ Udaltzaingoko langile guztiei agintzea, ezarritako hierarkia-egituren bidez.
- ✓ Deialdia egiten zaion bilera profesionaletara joatea.
- ✓ Alkateari, zinegotzi-ordezkariari eta Hiritarren Segurtasun Alorreko zuzendariari zehapen-espedienteei hasiera ematea proposatzea, bai eta langileek jaso behar dituzten sariena eta ordainsariena ere.
- ✓ Urteko jardueren eta zerbitzuen memoria prestatzea.
- ✓ Alkateari, zinegotzi-ordezkariari eta Hiritarren Segurtasun Alorreko zuzendariari zerbitzuen garapenaren berri ematea eta emandako aginduak gauzatu eta betearaztea.
- ✓ Alkateari, zinegotzi-ordezkariari eta Hiritarren Segurtasun Alorreko zuzendariari beharren arabera aurrekontu-proposamenak igortzea, zerbitzua egoki gara dadin.
- ✓ Alkateari, zinegotzi-ordezkariari eta Hiritarren Segurtasun Alorreko zuzendariari Udaltzaingoaren langileen prestakuntza eta birziklatzea proposatzea.
- ✓ Ermuko Udaltzaingoaren ordezkari izatea agintaritzea eta erakundeen aurrean, alkateari edo zinegotzi-ordezkariari dagokion ordezkaritza kalterik egin gabe
- ✓ Fiskalekin, epaileekin eta epaitegiekin beharrezkoak diren harremanak izatea, Udaltzaingoi zein gainerako Segurtasun Indar eta Kidegoei dagozkien polizia judizialaren eginkizunei dagokienez.
- ✓ Antolamendu juridikoak aitortzen dion beste edozein eginkizun gauzatzea..

32.-Artikulua Ofizialordearen eginkizunak.

Lanpostuaren eginkizun nagusiak Udaltzaingoaren giza-baliabide eta baliabide materialen antolaketa, zuzendaritza eta ikuskaritza dira, bere nagusi hierarkikoarekin lankidetzan eta/edo berak eskuordetuta jardunez.

33.-Artikulua Txandako arduradunen eginkizunak.

Lanpostuaren oinarritzko eginkizuna zerbitzuan dauden udaltzainek egin beharreko lana banatzea, kontrolatzea, koordinatzea eta ikuskatzea da, lanaldian azal daitezkeen ezusteko edo presako egoera penal eta zibilei aurre eginez; halaber hiritarren segurtasunerako ekintzak burutzea, hutsak eta delituak egin daitezela prebenituz, eta egiten badira, horiek ikertuz eta dagokionari berri emanez, poliziaren eginbide guztien instrukture jardunez.

- a) Legeak ezartzen dituen poliziaren berezko eginkizunak gauzatzea.
- b) Bere ardurapean dituen giza-baliabideak kudeatzea, bere aginpeko agenteen jarduerak koordinatzea eta ikuskatzea, horiengan aginte zuzena egikaritzea, laguntza eskatzea bere

txandako langileen eta gin beharreko lanen arabera, bere txandan egindako gastuak ikuskatzea eta buruzagiari jakitera ematea, materialaren intendentzia...

c) Lanpostu honen kategoriaren arabera eman ahal dakion beste edozein.

34.-Artikulua Agenteen egikizunak

Lanpostuaren egikizuna hiritarrak prebentitza, babestea, zerbitzatzea da, haien eskubideak zainduz eta, Ermuko Udaltzaingoaren kide legez, bere buruzagien aginduei jarraituta legea betearaziz; zehatz-mehatz:

- a) . Agenteak legeak finkatzen dizkion egikizun eta eskuduntzak izango ditu, hala nola udaltzaingoaren administrazio egikizunak, zirkulazio-poliziaren egikizunak, zaintza- eta jagoletza-egikizunak, segurtasun-egikizunak eta polizia judizialarenak.
- b) Lanpostu honen kategoriaren arabera eman ahal dakion beste edozein.

35.-Artikulua Arauzko bidea.

Udaltzaingoaren hierarkizazioaren ondorioz, arauzko bidea erabili behar da zerbitzuarekin lotutako aginduak, txostenak eta eskaerak transmititzeko.

Aginduak idatziz eman beharko dira duten garrantziarengatik edo konplexutasunarengatik — edo aldi berean bi arrazoi horiengatik— hala behar denean, larrialdi-kasuetan izan ezik, haiek idatziz berresteari kalterik egin gabee. Lana txandaka banatu behar den ezkerro, posta elektronikoa izango da aginduak eta jarraibideak emateko tresna nagusia; hori horrela, garrantzitsua eta derrigorrezkoa izango da agente guztiek posta elektronikoari behar duen arreta jartzea, bakoitzari agindu zaizkion zerbitzuak prestasunez eman ahal izateko.

36.-Artikulua Zerbitzuaren antolaketa.

Udaltzaingoaren zerbitzuak txandatan emango dira, Udaltzainburuari dagokiolarik horiek zehaztu eta banatzea.

Udaltzainen antolamendua eta kategoria ezberdinetako langileei egikizunak ematea zerbitzuan une horretan dauden egiazko beharrianetara eta Udalak dituen bitartekoetara moldatu beharko da garai bakoitzean.

37.-Artikulua Ordezkapenak.

Agintea dagokien kategoriako kideek egikaritu ezin dutenean, Udaltzainburuak horretarako izendatuko duen kideak egikaritu beharko du.

38.-Artikulua Udaltzaingoaren agintariak.

Udaltzaingoaren agintariek euren esku dauzkaten eginkizunak betetzea exijituko diete euren menpekoei, eta zerbitzuan antzematen dituzten akats edo berri guztiak euren nagusiei jakinarazi beharko dizkiete berehala, bai eta euren eskumenekoak direnak zuzendu ere.

III.TITULUA. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

I. Kapitulua ESKUBIDEAK

39.-Artikulua Udaltzainek eskubide hauek izango dituzte: toki-administrazioaren funtzionarioei dagozkienak, beren estatutu-araubidetik eratorritakoak, Segurtasun Indar eta Kidegoen Lege Organikoan jasotakoak, Euskadiko Poliziaren Legean jasotakoak, eta, bereziki, honako hauek:

- a) Lanean egindako jarduketan ondorioz hasten diren auzietan Udalak bere udaltzainen defentsa juridiko beharrezkoa bermatuko du. Laguntza juridiko hori arauzko bidetik eskatuko da behar besteko aurrerapenaz.
- b) Eskubide ekonomikoak, sozialak eta laguntzakoak eta administratiboak legexedapenek eta sindikatuekin negoziatu ondoren hartutako udal-akordioek arautuko dituzte, betiere legeak onartutako xedapen-esparruaren barruan badaude.

II. Kapitulua BETEBEHARRAK.

40.-Artikulua Segurtasun Indarren Lege Organikoan, Euskadiko Poliziaren Legean eta funtzionarioei buruzko legedi orokorrean ezarritakoari kalterik egin gabe, udaltzainen betebeharrak izango dira Segurtasun Indarreko Legeak eta Euskadiko Poliziaren Legeak udaltzaingoei ematen dizkien eginkizunak betetzetik eratortzen direnak.

41.-Artikulua Ermuko Udaltzaingoaren kideek honako betebehar espezifiko hauek izango dituzte::

1. Jarduteko oinarritzko printzipioekiko loturatik ondorioztatzen direnak. Udaltzaingoari dagokionez, legea, eta bereziki, araudi honek:

- Antolamendu juridikora moldatzea.
- Erkidegoarekiko harremanak.
- Atxilotuen tratamendua.
- Lanbide ardura.
- Sekretu profeionala.

2. Edozein jarduera publiko zein pribatua egitean, bateraezintasunean ez erortzea, bateraezintasunei buruzko legediak debekatzen ez dituenak izan ezik.

3. Arrisku larria, katastrofe edo hondamen publikoa egon daitezkeen egoerei lotutako Babes Zibileko ekintzetan parte hartzeko beharra dute. Aurreko gertakarien aurrean pertsonak eta ondasunak babesteko eta laguntzeko beharra dute

4. Udaltzaingoaren kideek une oro uniforme ondo eta txukun jantzita eta norbere garbitasun egokia mantenduta lanean ibiltzeko beharra dute. Era berean, erabiltzeko edo zaintzeko emango zaizkien jantzien eta ekipamenduen kontserbazio-egoera ona mantendu beharko dute.

5. Lanaldi osoa egiteko beharra dute. Larrialdiren bategatik zerbitzua emateari utzi behar izango balio, aldez aurretik hierarkiako nagusi hurrenari jakinarazteko ahal dena egingo luke, hala eta guztiz ere, ez baliteke, zerbitzua emateari utzi eta gero, ahalik eta lasterren horren berri emango luke.

42.-Artikulua Udaltzaingoaren funtzionarioen jarduerarekin bateraezinak dira honako jarduerak: funtzionarioaren inpartzialtasuna eta independentzia kolokan jartzen dituztenak, beren betekizunak zehatz-mehatz betetzea galarazi edo haiei kalte egiten diotenak eta zerbitzuaren, funtzionarioaren, Udaltzaingoaren kidegoaren edo Udalaren interesekin lehiatzen direnak.

IV.TITULUA. KIDEGOAREN FUNTZIONAMENDUA.

I. Kapitulua FUNTZIONAMENDUAREN BARNE-ARAUAK.

43.-Artikulua Zerbitzu-aginduak.

Zerbitzuarekin lotutako aginduak, txostenak eta eskaerak arauzko bidetik izapidetu eta transmitituko dira, hau da, Udaltzaingoaren hierarkiazko egituraz baliatuta.

Beste bide, pertsona edo erakunderen bidez agenteek jasotzen dituzten komunikazioek izaera informatiboa izango dute, eta agenteen esku-hartzea Udaltzaingoaren Buruzagitzak ezarritako esku-hartzeko irizpideetara eta aginduetara egokitu beharko da.

II. Kapitulua LANALDIA ETA ORDUTEGIA.

44.-Artikulua Lanaldia.

1. Udaltzainen urteko lanorduen kopurua Ermuko Udaleko gainerako funtzionarioen berbera izango da. Hala ere, zerbitzuaren beharren arabera egituratuko da.

2. Zerbitzuaren beharrak direla eta, lanaldi hori luzatu ahal izango da, salbuespen gisa. Horrela bada, indarreko legean eta udal-akordioetan ezarritako konpentsazioa ordainduko da.

3. Udaltzaingoaren egutegian jai-egun izango dira igandeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko langileen jaiegunen egutegi ofizialeko 12 egunak, herriko 2 jai-egunekin batera.

4..Orokorrean, ezinbesteko kasuetako ohizkanpoko egoeretan salbu, lanaldia EZ da atsedunik gabeko 9 egun jarraitu baino gehiago luzatuko.

45.-Artikulua Zerbitzua emateko ordutegia.

1. Zerbitzua emateko ordutegia Udalak finkatuko du, eta zerbitzua emateko txanda egokiak ezarriko dira.

2. Larrialdi-kasuetan eta ezohikoak izateagatik Alkatetzak eskatzen duen kasuetan, langile guztiek eman beharko dute zerbitzua, larrialdiaren arrazoiak desagertu arte.

3. Zerbitzuaren beharrak direla eta, Udaltzaingoaren Buruzagitzak aparteko laguntza behar badu, eskatzen zaien agente guztiek zerbitzua eman beharko dute.

4. Aurreko paragrafoetan aipatutako egoerak ematen direnean, indarreko legediak eta udalakordioek ezarritako eran konpentsatuko zaie agenteei.
5. Larrialdi fisikoko, lesioko edo lanerako ezintasun iragankorreko egoeren berri ahalik eta azkarren eman beharko zaio Udaltzaingoaren Buruzagitzari, eta dagokion egiaztapendokumentazioa eman beharko da.
6. LEIg-aldian zehar (lanerako ezintasun iragankorra) interesdunak ezin izango du bere errekonferentziari kalte egin diezaiokeen jarduerarik egin, medikuaren aginduz babestutakoak izan ezik.
7. Lizentziak, baimenak, konpentsazioak edo aldaketak aurrerapen egokiarekin eskatuko dira, Udaltzaingoaren Buruzagitzari arrazoitutako idazki bat aurkeztuz. Buruzagitzak eskaera horiek helaraziko dizkio Alkatetzari, ebatz ditzan. Buruzagitzak ebazpen horren berri emango dio eskatzaileari.

46.-Artikulua Oporrak.

1. Oporrak, ahal dela, urteko ekainaren 1etik irailaren 30era hartuko dira, herriko jaiak diren aurreko asteburutik horiek amaitu arte izan ezik, ez eta dokumentu honetan dagokion atalean jasotzen direnetan ere.
2. Oporrak Ermuko Udaleko funtzionarioentzat araututakoari lotuko zaizkie. Ohiko oporraldiaz gain, Udalean gauza pertsonaletarako utzi diren egunak eta bakoitzari bere burua trebatzeko eta famili uztarketarako dagozkionak gozatu ahal izango dira.
3. Oporrak uko egin ezinezko eskubidea dira eta ezin izango dira diruz ordaindu.
4. Oporrak bi alditan gozatu ahal izango dira, bakoitza 7 eguneko txanda oso batekoa (64 orduren baliokide dena) gutxienez. Gainerako egunak asteburu bakar batekoak (24 orduren baliokide dena) izan daitezke. Oporraldiak ez ditu inolaz ere 3 asteburu segidan gaindituko.
5. Opor-aldiak txandaka hartuko dira. Buruzagitzari oporrak aldatzeko eskatu ahal izango zaio, lan-talde ezberdinetako pertsonen artean adostuta, hasierako txandaketa hutsaltzen ez denean.
6. Oporrak urteko martxoaren 30a baino lehen eskatu beharko dira, eta urte bereko apirilaren 30a baino lehen berretsi beharko ditu Buruzagitzak. Epe horretan eskatu ezean Buruzagitzak ezarriko ditu, gutxienezko eta txandakako zerbitzua betetzeko irizpideei jarraituta (aurreko urteetan nola hartu diren ere kontutan hartuz).

V.TITULUA. UNIFORMEA, KOMUNIKAZIOA ETA BALIABIDE MUGIKORRAK

47.-Artikulua Arau orokorrak

- 1.- Udaltzaingoaren kideek euren eginkizunak betetzean arauzko uniformea jantzi beharko dute, Buruzagitzak zehaztuko dituen salbuespenetan izan ezik, egingo den jardueraren arabera.
- 2.- Ez da onartuko araudi honek ezarritakoarekin bat ez datozen ekipamendua, jantziak eta osagarriak erabiltzea, eta horiek ez dira inolaz ere inola aldatu ahal izango.

- 3.- Nolanahi ere, norbere erropak erabili ahal izatea eskatu ahal izango zaio Buruzagiari, zergatiak idatziz azalduz, eta Buruzagiak baimena eman ahal izango du, idatziz baita ere.
- 4.- Udaltzaingoaren kide guztiek lagundu beharko dute poliziaren instalazioak zaintzen eta mantentzen, debekatuta dagoelarik poliziaren zerbitzuak ez diren helburuetarako erabiltzea.
- 5.- Udaltzain bakoitzak bere kutxatila eta armaleku bat izango du eman zaizkion uniformeak eta poliziaren ekipamendua gordetzeko. Udaltzainburuak horietako giltzen kopia edukiko du, gauza horien titular legez.
- 6.- Buruzagitza udaltzain bati esleitutako armalekua edo kutxatila bere baimenarekin bakarrik irekiko da. Horiek irekitzea presakoa balitz eta dagokionaren baimena lortzeko ezingo balitz itxaron, Txandako Arduradunak irekiko du lekuko baten aurrean, egindakoren akta jasoz.

48.-Artikulua Uniformea.

1. Uniformeari dagokionez (arropak, identifikazioa eta plakak, enblemak eta ezaugarriak, bereizgarriak, taldea eta armamentua), indarrean dagoen araudian ezarritakoa aplikatuko da, hau da, Herrizaingo, Justizia eta Administrazio Publikoko sailburuordearen 2012ko irailaren 24ko Aginduan ezarritakoa. Haren bitartez, "Udaltzaingoaren uniformetasunaren eta kanpoaldeko zeinu bereizgarrien eskuliburua" argitaratu zen.

49.-Artikulua Komunikazioa eta informatika-sistemak.

Udaltzaingoak euren kudeaketari egokitutako informatizazio-sistemak eta zerbitzuak eraginkortasunez ematea, benetako koordinazioa, lankidetzaren eta beste poliziekiko kooperazioa bermatuko dituzten igorpen eta telekomunikazio sareak izango ditu.

50.-Artikulua Baliabide mugikorrak.

Udaltzaingoak ibilgailuak eta baliabide mugikorrak izango ditu, egin beharreko funtzioen eraginkortasuna bermatuko dutenak.

VI.TITULUA. PRESTAKUNTZA ETA SUSTAPEN PROFESIONALA.

51.-Artikulua Udaltzainek prestakuntza eta gaikuntza profesional iraunkor egokia jasotzeko eskubidea dute, beren eginkizunak egoki betetzen direla eta hizkuntza-gaikuntza egokia dutela bermatzeko.

Udalak udaltzainen prestakuntza sustatu eta erraztuko du, jarduera propioen edo beste erakunde edo administrazioekin egindako akordioen bidez.

Prestakuntzaren xede den gaiak lanpostuarekin harremana izango du.

52.-Artikulua Hezkuntza iraunkorreko ikastaroen oinarria da langileak ezagutza profesionalen jakinaren gainean egoteko beharra. Haiek beren eginkizunetako gaien arabera ezartzen diren lege-xedapenak eta jarduteko arauen arabera eguneratzen dira.

53.-Artikulua Halaber, sustapen profesional egokia izateko eskubidea aitortzen da, objektibotasuneko, aukera-berdintasuneko, merituen eta gaitasunaren printzipioekin bat etorritz.

VII.TITULUA. DIZIPLINA ERREGIMENA.

54.-Artikulua Aplikatu beharreko arau eta printzipioak.

1.- Ermuko Udaltzaingoaren kideek euren funtzioak betetzean egindako hutsegiteak eta horien zehapen-prozedura Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Antolatzeari buruzko uztailaren 17 4/1992 Legearen III. Tituluaren VIII. Kapitulua, eta arau hori garatzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Polizien Diziplina Araubidearen Araudia onesten duen maiatzaren 3 170/1994 Dekretuak arautuko dute, bai eta honako Erregelamenduak eta une bakoitzean indarrean egongo den araubideak.

2.- Nolanahi ere, diziplina araubidea errugabetasun-presuntzioaren, kontzentrazioaren, akusazioaren informazioaren eta interesdunaren entzunaldiaren printzipioei egokituko zaie.

3. Alkateak edo zinegotzi-ordezkariek izango du zehapen-espedienteari hasiera emateko eskumena, bai eta kautelazko neurri beharrezkoak hartzeko, eta, hala balegokio, udaltzainak zehatzeko ere; zerbitzutik behin betiko banantzeko zehapena inposatzeko eskumena izan ezik. Azken hori, Udaleko Osoko Bilkurari dagokio.

VIII.TITULUA. AITORPENAK ETA SARIAK.

55.-Artikulua Aitorpenak eta sariak.

Alkateak edo zinegotzi-ordezkariek izango du zehapen-espedienteari hasiera emateko eskumena, bai eta kautelazko neurri beharrezkoak hartzeko, eta, hala balegokio, udaltzainak zehatzeko ere; zerbitzutik behin betiko banantzeko zehapena inposatzeko eskumena izan ezik. Azken hori, Udaleko Osoko Bilkurari dagokio.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA.

Erregelamendu honetan adierazi ez denari dagokionez, Udaltzaingoari aplikatu dakiokeen indarreko legedian xedatutakoari jarraituko zaio.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.

Ermuko Udaltzainburuak eskumena izango du, araudi honen garapenari dagokionez, behar diren erabakia guztiak hartzeko,

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Erregelamendu hau onetsi, jakitera eman eta indarrean sartu bezain laster, 1989ko irailaren 29an Udalbatzarrak behin betikotasuen hartutako erabakia bidez onartutako Ermuko Udaltzaingoaren Araudia indargabetuko da. Halaber, Ermuko Udalaren beheragoko mailako arau, erabaki, ebazpen eta xedapen guztiak eta Udaltzaingoaren agindu, zirkular eta beste xedapen guztiak ere indargabetuko dira, araudi honek xedatzen duenarekin bat ez datozen heinean.

AZKEN XEDAPENA

Ermuko Udaleko Udaltzaingoaren Antolamenduaren eta Zerbitzuaren Erregelamendu hau indarrean sartuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 30 egun igaro ondoren.